

bidegileak



**Katalina Eleizegi (1889-1963)**

Egilea:

**AMAIA ALVAREZ URIA**

Donostiako erdigunean jaio zen Katalina Eleizegi Maiz, 1889ko apirilaren 6an. Hiru neba-arrebetan nagusia zen. Bere atzetik Joxe jaio zen eta urte batzuk beranduago Jesus Mari. Kaietano arotz urnietarra eta Juana etxeko-andre donostiarra ziren euren gurasoak.

Txikia zenean, bospasei urterekin, katarro bat txarto osatu eta handik aurrera bronkitis kronikoa eduki zuen bere bizitza osoan. Gaixotasun honek ganoraz arnastea galarazten zion, asma zeukan eta eztarria urratuta. Garai hartan gaixotasun hau zaintzeko klima lehorraoaen bila joateko ohitura zegoen, eta bere biografietan diotenez horren



Katalina Eleizegi Maiz (1889-1963)

ondorioz, herri askotan bizi izan zen: hasieran Donostian bere gurasoenean, baina gero, Euskal Herriko beste herri batzuetara joan zen bizitzera.



Maria Dolores Arbilla eta Juanita Goikoetxea andereñoak Tolosako ikastolako ikasleekin 1930ean

## Bizilekua eta ikasketak

Donostian itotzen zela zioen Katalinak, eta horren ondorioz Gipuzkoako barnealdera joan zen herri batzuetan egonaldi laburrak egitera: Bidanian eta Amasan egon zen. Nafarroako Iturenetik Burgosera joan zen bertako Irakasle Eskolan ikasteko.

Garai hartako maistrek 18 urterekin amaitzen zuten ikasketa aldia eta eskolak ematen hasten ziren, beraz, 1907tik aurrera izan zuen irakasle izateko aukera. Tituludun euskal maistren lehen belaunaldikoa izan zen.

Nafarroako herrietan ibili zen: hiriburuan denboraldi luzeagoa pasatu ondoren, Auritzen

1926ko hilabete batzuetan egon zen. Hiru urte geroago Madrilera joan zen.

Bere gaztaroan bidaia asko egin zituen eta Euskal Herria ondo ezagutu (Gipuzkoa eta Nafarroa batez ere), baina bere bizitzaren bigarren erdia Lizarran pasatu zuen, azken hogeita hamar urteak. Gerra zibilaren hasieratik hil arte herri horretan bizi izan zen Katalina.

Bi pisukoa zen Txapitel kaleko lehen zenbakiko etxea, goiko pisuan zegoen etxebizitza, Katalinak egongela handia eta logela txikia zituen bertan, eta beheko pisuan senarraren lantokia zegoen: Etxegoien ehorztetxea. Honek ematen zion giro iluna Katalinaren eta senar-emazteen iloben bisitek argitzen zuten.



Lizarrako Txapitel kaleko etxe honetan bizi izan zen Katalina ia 30 urtez

## Nortasuna, jendezalea

Asko gustatzen zitzaizkion umeak, eta bere neba Jose eta Maria Luisaren seme-alabak edo bere etxeko andre Josefinaren ilobak Lizarrako etxera joaten zirenean ipuinak kontatzen zizkien. Helduekin, ordea, berriketa luzeak izaten zituen, bere iloba Migelek dioenez oso solaskide on eta atsegina zen, eta beti zeukan kontatzeko zerbait, oso jakintsua zelako.

Josefinaren iloba Rikardok hitz hauekin gogoratzen du: «oso heziketa onekoa baina maitekorra aldi berean, mototsean bilduta zeraman ilea eta potolatxoaren zen. Bere ahotsa latza zen, marrantak jotakoa». Oso fededuna zen eta mezetara joaten zen ahal zuen guztietan.

Katalinaren bizitzaren azken urteetan berriz, ez zen ia etxetik ateratzen, bere liburu eta koardernoaren artean pasatzen zituen egunak eta bisitekin solasean. Etxe horretako andreak egiten zizkion etxekolanak, otorduak eta erosketak gurasoek bidaltzen zioten errenta baten truke, oso harreman ona zeukaten haien artean.



Virginia Woolf (1882-1941)

## Emakumea eta ezkongabea

Virginia Woolfek esaten zuen emakume batek idatzi ahal izateko norberaren gela eta errenta bat behar zituela, eta berez, lekua eta denbora izanez gero, oso jarduera bideragarria zela emakumeentzat idaztearena, arkatza eta paper sorta bat besterik ez zelako behar horretarako.

Katalinak baldintza hauek betetzen zituen: gurasoen errenta jasotzen zuen eta bere gela

zeukan. Denbora luzea zeukan idazteko gainera, ez zuelako lanik egiten (oso gutxitan eman zituen eskolak), eta ez zuen ez familiarik ez etxerik zaindu behar (ez zen ezkondu eta ez zuen seme-alabarik izan).

Bere anaia Joxe Mari Luisa Larrerekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten. Bere anaia Jesus Mari ere ezkondu zen, baina beranduago eta seme-alabarik eduki gabe. Katalina arreba nagusia ezkongabea izan zen bere bizitza osoan.



Katalinaren nebaren ezkontza. Katalina goian eskuinean dagoen azken emakumea da



## Heriotza eta omenaldiak

Katalinaren beldurra asmak itota hiltzea zen arren, ez zen halakorik gertatu. Heriotzak ezustean harrapatu zuen hirurogeita hamalau urte zituela. Ahoan infekzio bat zuen eta medikuak injekzio bat ipini zion. Honek erre-akzioa egin zion eta horrela joan zitzaigun Lizarran 1963ko azaroaren 19an.

1994ko abenduan Azpeitian egin zen *XII. Antzerki Topaketetan* omenaldia egin zioten bere jaiotzaren 105. urteurrenean. Bere lanik arrakastatsuen izan zen *Garbiñeren* berrargitalpena egiteko aprobetxatu zuten orduan. Donostiako Aiete auzoko kale bati bere izena ipini zioten 1966an.



Azpeitian egin zioten omenaldia



Donostian dago ehortzirik Katalina Eleizegi Maiz

## Lanen harrera

Euskal literaturaren historia askotan aipatzen dute eta nahiz eta esku-liburu hauetan idazle honek izan zuen garrantzia eta lekua islatu ez izan, Harkaitz Canok «euskal antzerki modernoaren ama» izendatu du. Bere garaian oso harrera beroa izan zuten bere lanek kritikari eta ikusleen aldetik.

Idatzi zituen lanak bi taldetan banatu ditugu: arrakastatsuak eta ezezagunak. Gehien aipatzen direnak *Garbiñe* (1916), *Loreti* (1918),

*Yatsu* (1934) eta *Katalina Erauso* (1962) dira. Agian antzeztu zirenak direlako aipatzen dira hauek, beharbada garaiko kritikak aintzat hartu zituenak direlako. Ezezagunen artean argitaratu zen bakarra, *Gaine* (1929) izan zen.

Lan ezezagunen artean bere eskuizkribuak dauzkagu. Katalinak koadernoetan idazten zituen bere lanak, eta senideei heldu zaizkie horietako batzuk. *Brujaseko harilkia* (1960) eta *Roldan* (1963) daude hauen artean, lehena amaituta dago, osorik, eta bigarrena amaitu gabe.



Donostiako Katalina Eleizegi kalea




## Euskal pizkundea

XX. mendearen hasieran kokatzen da euskal literaturan *Euskal pizkundea*. Urte horietan loraldi aipagarria egon zen euskal letretan. Narratibari eta batez ere poesiari buruz hitz egiten da *Euskal pizkundea*ren gainean ari garenean. Txomin Agirreren lanak mendea hasi eta berehala aurkitzen ditugu eta Lizardi eta Lauaxetaren lanek amaitu zuten aro hau, gero gerra etorri baitzen. Hauek dira gaur egun jarraitzen den kanonaren mugarriak garai horretan.


Baina Torrealdaik *Euskal kultura gaur* lanean gogorarazten digu XIX. mendearen amaieratik Martzelino Soroarekin eta XX. mendearen lehen herena pasa arte Toribio Altzagarekin

Euskal antzerkia izan zela benetan arrakasta izan zuena. Antzerkia izan zen 1876tik 1935era gailendu zen genero literarioa. Euskal antzerkiaren urrezko aroan kokatu behar dugu beraz Katalina Eleizegiren lana.

Patri Urkizuri irakurri diogu hiru egun zirela Donostian antzerkia ikustera joateko: San Sebastian eguna urtarrilaren 20an, Iñaute astelehena aldakorra eta Santo Tomas eguna abenduaren 21ean. Donostian Antzoki zaharra eta beste herrietan hango antzokiak leporaino egoten ziren hiru egun horietan eta ager-karrietan laudorio handiak idazten zituzten idazle eta antzezlarientzat. Abertzaletasuna zabaltzeko ere erabiltzen zen antzerkia, eus-kara eta euskal kultura sustatzearekin batera.



Antzerkia izan zen gehien argitaratu zen generoa 1876-1935 urteetan



Poesia izan zen gehien argitaratu zen generoa 1936-1975 urteetan. Narratibak hurbiletik jarraitzen zion

## Euskal antzerkia

Garai horretako antzerkia ez zen hala ere oso maila altukoa, benetan profesionalizatzen hasi zirelako gerra ondoren, 1950etik aurrera. Izan ere, orduan hasi ziren kanpoko lanak erruz itzultzen eta antzerki teknika desberdinak lantzen, beste joera batzuk landuz. Baina antzerkiaren munduan ezin uka mugimendu handia zegoela, Katalinaren antzezlanetarako Bartzelona eta Berlinetik ekarri izan zituzten dekoraziorako gauzak, esaterako.

Gerra hasi arte antzezlan herrikoiak egiten ziren, besteak beste tradizio handia zegoelako XIX. mende bukaeratik, Soroaren lanen eragina Altzagarenetan ageri zen eta beste egileek ere aintzat hartu behar zuten egiteko modu hau arrakasta izan nahi bazuten, hau da, ikusleek haien lana ulertzea eta berarekin gozatzea nahi izanez gero.

Iñaki Barriolak kontatzen digu zein ezaugarri zituen orduko antzerki lanak:

Antzerki hauek nolakoak ziren? Garai hartarako nahikoa egokiak, kritika zorrotz bat jasango ez balute ere. Berdin esan daiteke egile gehienengatik. Ondo zekiten hauek nolako ikusleentzat idatzi behar zuten, eta hemengoak ez zirela Euskal Herritik kanpokoak bezalakoak, ezaguera eta antzerki-ohitura gutxiagokoak, izatez eta politikaz herrikoiagoak baziren ere. Klean entzuten ez zen hizkuntzaren eta agertzen ez zen pentsaeraren bila zihoazenak, xumeak; he-

riaren eran hitz egin behar zitzaienak, pentsamendu sakonik, nahaspilarik gabe, erraz eta garbi. Alai, gainera, ahal izanenean. Horretan, nere ustez, agiriaren ziren egileek asmatu egin zuten.



Martzelino Soroa  
(1848-1902)



Toribio Altzaga (1861-1941)

## **Euskal Iztundea**

**E**z onostia zen euskal antzerkiaren epizentrotua garai hartan, eta sariketa ugari antolatzen zituzten udal eta aldizkarietan. Giro honetan sortu zuen Toribio Altzagak *Euskal Iztundea* antzerki eskola eta handik atera zen antzerki taldeak lan handia egin zuen Euskal Herri osoan. *Euskal Iztundeak* bi aro izan zituen, lehena gerra aurretik Altzagaren zuzendaritzapean eta bigarrena gerra ostean (Altzaga hil eta gero) Maria Dolores Agirrerekin. *Euskal Iztunde Eskolaren* lehen aroan (1915-1936) euskal antzerkiak maila altua lortu zuen. *Euskal Iztundeak* kulturari egin zizkion ekarpenen artean aipagarria iruditu zaigu emaku-



*Euskal Iztundea Altzagarekin*

meen parte hartzearena. Antzerkiaren munduan, taula gainera hasi eta antzezlanen zuzendaritzara heldu arte, ez zen momentu horretara arte emakumerik egon. Iñaki Barriolak horrela kontatzen du:

Iztundea sortu aurretik ez zen emakumezko agertzen eszenarioan; gerora bai, eta izen handia lortzera iritsi ziren Aranberri, Arrieta (Beorlegiren emaztea), Irigoien, Arzelus, eta beste; gizonzkoen artean, Egileor, Beorlegi, Etxebarria, Arizmendi, Mujika edo Ugartetxea bezala.



*Euskal Iztundea Agirrearekin*

Handik aurrera eta Errepublikaren aldeketa aurrerakoiak eta Emakume Abertzale Batzaren sorrera eta lanarekin gauzak aldatu ziren.

*Euskal Iztundea* 1915etik 1929ra 51 antzerki ezberdinen 113 emanaldi egin zituen. Kopuruari dagokionez, *Ramuntxo* (18), *Garbiñe* (13) eta *Ezer ez da festa* (11) nabarmentzen dira. *Garbiñe*ren antzezpeneak Donostian 6, Bergaran 2, Oñatin 1, Irunen 1, Errenterian 1, Zumaian 1 eta Arrasaten 1 izan ziren, (1917, 1918, 1923, 1924, 1928, 1929 eta 1935. urteetan). *Loreti* Donostian hiru aldiz (1918, 1919 eta 1920.ean).

Beste antzerki talde batzuk zeuden, jakina, eta hauek ere antzeztu zituzten Katalinaren antzezpeneak: Gazteluko *Gazte Alaiak* eta Bergarako *Eleizalde* taldea dira aipagarrienak.

## Bere lanen irudia

Testuinguru honetan, Katalinaren lanen kritikari dagokionez, kasurik gehienetan laudoriozkoak izan ziren, batez ere bere lehenengo lanari egindakoak. Dena dela, *Yatsu* lanari egindakoen artean aldeko eta kontrako kritikak topa daitezke. Aldekoek lan honen abertzaletasun sentipena azpimarratzen dute eta kontrako kritikak aipatzen du antzezlarien lana ona izan arren idazleak berea findu beharko lukeela.


1926an Toribio Altagari egin zioten elkarrizketa batean honek esan zion kazetariari Katalina Eleizegi eta Abelino Barriola zirela orduko euskal antzerkiaren klasikoak eta beranduago, kazetariak eskatu zionean antzezpene onenen zerrenda egitea, Altagari Eleizegiren *Garbiñe* aipatu zuen lehenengo lekuan eta *Bost urtian* bigarren (Altagarien lan bat). Bistan da oso desberdin baloratu izan dutela Katalinaren lana bere garaian eta gaur egun. Hona hemen Katalinaren lanei buruz orduko aldizkari eta egunkarietan esandako batzuk:

[...] el grandioso drama de época Garbiñe, original de la señorita Catalina Eleicegui [...]. Si la noche del estreno causó Garbiñe una impresión de asombro, esta llegó a su maximum de intensidad en la segunda representación, en que pudieron apreciarse las grandes bellezas de todos órdenes que encierra tan hermosa producción. Bien lo

manifestó el público con sus nutridas ovaciones, obligando además a la autora a salir repetidas veces a escena a recibir el homenaje de admiración tributado por la electrizada concurrencia (*Euskalerría*: 1917).

No decae un momento el interés siempre creciente del asunto, el diálogo está salpicado por pensamientos en que se descubrió el ingenio y delicadeza de la autora y el lenguaje reveló un casticismo recomendable. Y ahora sólo nos resta presentar a la autora; es la señorita Catalina Eleicegui, quien ha sorprendido con una obra dramática de altos vuelos, de desarrollo maravilloso, en que ha salvado por modo sorprendente escollos en que resbalan con frecuencia autores avezados en lides teatrales. Garbiñe no parece la obra de una autora que empieza, sino de una que llega. De donde se deduce que la señorita Eleicegui al empezar ha llegado. Que sea enhorabuena (*El Liberal Guipuzcoano*: 1917).

Eleizegitar Katariñe andereñoak oso tajuz kondaira-antzerkia lantzen du: Loreti eta Garbiñek arrera ezin ohea ta txalotuak izan dira toki guzietan (*Antzerti*: 1932).



## Bigarren Errepublika eta Gerra zibila

Bigarren Errepublikak (1931-1936) demokrazia eta autonomiak izan zituen ardatz, sufragio unibertsala lortu zuen emakumeen boto eskubidearen lorpenarekin (1931ko konstituzioko 36. artikuluekin eta 1933ko hauteskundeetan) eta estatua eta elizaren arteko banaketa eta dibortzioaren legea ezarri zituen. Loraldi hau bizi eta gero, Gerra Zibila etorri zen 1936an itxaropen eta lorpen guztiak errotik moztuz.

Llum Quiñoneroren arabera, emakumeek 1970eko hamarkada heldu arte ezin izan zuten gurasoen etxea utzi 25 urte bete arte ezkontzaren edo komenturako bidea hartzen ez bazuten, behintzat. Ezkonduetako emakumeek



Maria Dolores Agirre (1903-1997)



senarraren baimena behar zuten epaiketa batera joateko, ondasunak erosi eta saltzeko eta lan kontratua sinatzeko. Errepublikan lortutako aurrerapen guztiak desagertu ziren eta aitaren edo senarraren menpe bizi behar ziren garai hartako andrazkoak txintik atera gabe.

Euskal antzerkiaren egoera asko aldatu zen gerraren etenaldiaren ostean. Gerra ostean Maria Dolores Agirrek hartu zuen *Euskal Iztundearen* gidaritzza eta 1949an antzezlan bat idatzi zuen, *Aukeraren maukera, azkenean okerra*. Lan hau izan zen beste batzuekin batera gerra hasi zenetik egon zen isiltasuna urratu zuena (1936tik 1950. urtea arte ez zelako euskarazko testurik argitaratu zentsura eta errepresioa zirela eta). Honela bueltatu zen apurka-apurka euskal antzerkia eta euskal literatura Hego Euskal Herrira.

Nola egin zuen aurrera «bakarrik» bizi zen Katalina Eleizegi emakume ezkongabeak gerra zibila hasi zenean? Hasieran komentuan hartu zuen aterpea eta gero seme-alabarik gabeko senar-emazte batzuekin bizitzera joan zen, herriko mojek aukeratutako familia batengana. Oso fededuna zen, eta ahal zuen guztietan mezetara joaten zen. Bestalde, ez zen askotan ateratzen etxetik.

Sorkuntzarekin jarraitu zuen arren, eremu pribatura mugatu zuen hau, ez zuen plazaratu, autozentsura egin zion bere buruari bere lanak etxean gorde zituelako, eta sortzaile askorekin gertatu den moduan, bere ingurukoek pentsatu zuten gerrak bere sorkuntza lana eten zuela eta hurrengo belaunaldiena zela gerraosteko garaia.



Bigarren Errepublikako hauteskundeak, 1933an

## Utzi zizkigun lanak

Bere lehenengo lau lanak 1916 eta 1934 artean idatzi, antzestu eta argitaratu ziren: *Garbiñe*, *Loreti*, *Gaine* eta *Yatsu*. Gero gerra etorri zen errepresioarekin. 1960 eta 1963 urteen artean idatzi zituen *Katalina Erauso* (hau antzestu zen, baina ez zen argitaratu), *Brujaseko harilkia* eta *Roldan* (azken hauek koadernoetan geratu ziren).

### 1.- *Garbiñe* (1916)

Hiru ekitaldiko drama historikoa da hau, bere lanik ospetsuena. Donostiako Udalak 1916an saritutakoa, 1916ko abenduaren 21ean Donostiako Antzoki Zaharrean estreinatua, hurrengo urtean Tolosan argitaratua eta urteetan antzetzua izan da. Oso kritika onak jaso zituen (Toribio Altagarenak barne). XIII. mendean dago kokatuta, nafarren eta musulmanen arteko gerra zegoen bitartean. Ezinezko amodio baten istorioa da. Benito Perez Galdosen *Mariane-*

larekin konparatu dute, lan honetan agertzen den maitasuna eta sakrifizioaren arteko uztarduragatik. Iñaki Aldekoak bere *Historia de la literatura vasca* lanean esaten du Arakistainen tradizio foruzalearen eragina duela.



*Garbiñe*ren lehen emanaldiaren kartela



*Garbiñe*ren antzezpena



*Loreti*ren antzezpena

## 2.- Loreti (1918)

Hiru ekitaldiko drama historikoa da hau ere. Donostiako Udalak 1917an saritua, 1918ko abenduaren 21ean estreinatua, argitaratua eta antzetzua. Aurrekoak baino harrera epelagoa izan zuen (kritikarientzat aproposagoa zela zioten eta ez ikusle xumeentzat). Egileak kultura



Loretiren lehen emanaldiaren kartela

handia zuela berresten du lan honek. Donostiako Antzoki Zaharrean antzetztu zuten 1918ko abenduaren 21ean. Kantabriar gerrateetan girotu zuen, euskaldunak erromatarren kontra. Aldekoaren iritziz lan honen oinarrian Arakis-tainen *Tradiciones vasco-cántabras* lana dago. Garaia ikerketa sakona egin zuen egileak.

## 3.- Gaine (1929)

Hiru ekitaldiko antzezlan da. Argitaratua 1932ko otsaila-apirila bitartean *El Día* egunkarian. Ez da (ia) ezagutzen, (ez da aipatzen baina interneten dago). 1970eko hamarkadan girotuta dago, etorkizunean beraz: «emendikan berrogeinbat urtera gertatuko balitzake lez antzetzuko da» idatzi zuen sarreran. Europako hotel bateko batzar gelan hasten da XX. mendearen hondarrean, baina bigarren ekitaldia XIII. mendeko giroa duen Atarratzeko jauregi batean gertatzen da.



Gaineren argitalpenaren lehen orria

#### 4.- Yatsu (1934)

Hiru ekitaldiko drama historikoa da. Saritua, argitaratua eta antzeztua. Ezin da topatu (momentuz behintzat) eta askok ez dute aipatu ere egiten. Frantzisko Xabierren familiaren izena daraman lan honetan 1512an Nafarroako konkista kontatzen du. Kritika on eta txarrak izan zituen, abertzaletasunari erreparatzen zioten batzuek eta idazlearen lanari besteek.



Yatsu lanari egindako kritika bat

#### 5.- Brujaseko harilkia (1960)

Ekitaldi bakarreko «gabonetako ipuina» da (Charles Dickensen ipuinen estilokoa), Katalinaren hitzetan *kondaira polita* da hau. Ezezaguna da. XIII. mendean dago girotuta, Flandeseko Brujas hirian. Andre Susan jostuna (amama) eta Mady (biloba gaztetxoa) dira protagonistak. Aberatsen eta pobreen arteko desberdintasunak agerrarazten ditu eta bigarrenen bizimodu gogorra.



Brujaseko harilkia lanean dagoen argazkia

#### 6.- Erausoko Kateriñe (1962)

Hiru ekitaldiko drama historikoa da eta antzeztu zuten egilea hil eta gero baina ez zuten argitaratu. Antzezlan honetan Katalina Erauso moja alferrezaren biografia kontatzen da. Erauso familiaren etxean hasten da, Donostiako mojen komentuan jarraitu eta Mexikon,




Katalina Erasoren antzepeña

azteken herrian amaitu. Hemen erlijio kristaua eta erlijio azteka agertzen dira, *Garbiñe*, *Loreti* eta *Brujaseko harilkia* lanetan bezala kristautasuna eta kristautasuna baino lehenagoko erlijioak.

### 7.- Roldan (1963?)

Hiru ekitaldiko drama historikoa eta ezezaguna. Ez dago osorik. Besteak bezala, hau ere Euskal Herriko historiaren gertakari garrantzitsu batean girotuta dago eta tartean ezinezko amodioa agertzen da.



Roldan lanaren orri bat



## Emakume irudiak

**B**ere lanetan, geroago ikusiko dugun bezala, oso kontuan hartzen ditu emakume pertsonaiak eta hauen bizimodua. Protagonistak beti dira andrazkoak: Garbiñe eta Lide *Garbiñe* lanean, Loreti eta Aztain-amonan *Loretin*, Katxala *Katalina Erauson* eta Andre Susan eta Mady biloba *Brujaseko harilkian*.

Izenburuei erreparatzen badiegu konturaturuko gara zazpi lanetatik lautan andrazkoen izenak ditugula: *Garbiñe*, *Loreti*, *Gaine* eta *Katalina Erauso*; bitan gizonezkoena: *Yatsu* eta *Roldan* eta baten objektu batena: *Brujaseko harilkia*. Kontuan hartzen badugu gizonezkoen izenak Euskal Herriko histo-



Katalina Erauso (1592-1650)

rian duten garrantzia eta lan hauetan protagonisten artean emakumeak agertzen direla (*Yatsun* ez dakigu, baina *Roldanen* bai), argi geratzen da Katalinaren kezka abertzale eta erlijiosoekin batera andrazkoen bizimodu eta esperientziak garrantzi handia zutela.

Garbiñe eta Lide ez dira alabak soilik, pertsona osoak dira, gizonaren baimen eta aholkurik gabe erabakitzeko gaitasuna duten banako askeak. «Ez naiz emango apaingallu edertasunen zale,

azkatasuna bakarrik, azkatasuna nahi dut» eta «Ez naiz ni otseñetako jaioa» esaten digu Loretik. Hona Garbiñek Lideri esaten diona: «Egipen honetan, zure hitza zure aitarena bezain indarrekoa da; eta berak ere horrela ezagutuko du... maite duzun gizona, zu adinakoa baldin bada».



Garbiñeren antzezpena

Loreti eta Aztain-amonak abertzaletasuna/askatasunaren sinboloak dira lan honetan. Askatasuna da balore guztien ginetik dagoena, herriarenganako maitasuna beste pertsonenganako maitasuna baino garrantzitsuagoa da. Antzezanaren hasieran, baserriaren ate aurrean babak aletzen dauden bitartean, Aztain-amonak Loretiri esaten dio berak maite duen Larok aitaren oniritzia duela.

Baina Loretik bere poza agertzen duenean, amonak honela diotso: «Ez gehiegi alaitu, nire biloba. Oraingo behintzat, ongi dakin ezin

dezakeala Larok horrelako txorakerietan gehiegi bururik jarri». Loretik amonak esandakoa onartzen du Laro, Loreti eta euskaldun guztien betebeharra eta lehenatasuna euskaldunen alde eta erromatarren kontra egitea delako une horretan.

Katxala daukagu *Katalina Erauso* laneko protagonista. Katalina Erausok Sebaste Legazkona izena izango du Mexikon eta Katxala Donostian. Antzezanaren lehen zatian bere neba etorriko da mundua ezagutzetik; itsasontzitik jaitsi eta bere bila joango dira familia eta lagunak ongi etorria egitera eta bere abenturak entzutera. Katxalak ez du Donostian geratu nahi, komentuan lekaime edo etxean senarra eta seme-alabak zaintzen. Bere nebak egiten duena egin nahi du. Horrela aurkezten digu pertsonaia hau.

*Brujaseko harilkian* andrazkoak erabiltzen ditu pobreak eta aberatsak irudikatzen. Andre Susan jostuna eta Mady biloba dauzkagu txirotasun/zintzotasunaren sinbolo eta Mina burgomaestre-andrea eta Zara bere neskamea aberastasun/harrokeria adierazteko. Pertsonaia garrantzitsuenak beste behin emakumezkoak, eta ikusi dugun bezala, molde askotakoak.

Ezinezko maitasuna da bere lanetan errepikatuko den gai bat: *Garbiñe, Loreti, Gaine, Katalina Erauso* eta *Roldanen*. Emakumea eta gizona, biak dira kaltetuak maitasunaren eremuan. Maitatzea eta maitatua ez izatea, hori da modu anitzetan agertzen den gaia.

## Euskara eta aberria

Toribio Altzagak 1926an egin zioten elkarrizketak hurrengo kontakatzen digu Katalina Eleizegiren lan egiteko moduari buruz:

Eleizegi andereñoak Euskal Herriko ezagutza sakona dauka. Kantauriko kostan ia osorik ezagutu du, bertako ohiturak ikasi ditu eta datu pila bat bildu ditu, ñabardura txikienetaz jabetzearen aukera eman diotenak. Bereziki aztertu ditu herrietako pertsonaiak: idazkari, sendagile eta alkateei buruz oso pasadizo xebleak kontatzen dizkigu noizean behin.

Nahiz eta gaztelaniaz oso ondo jakin euskaraz idaztea erabaki zuen, bere hizkuntzan. Nabari da bere Euskal Herriko ezagutza geografikoa eta soziala izateaz gain linguistikoa ere bazela. Bere lanetan gipuzkerazko hitzak aurkitzen ditugu eta baita bizkaierakoak nahiz nafarrerakoak ere. Erregistro desberdinak azaltzen dira pertsonaiak ezaugarritzeko beste baliabide baten gisan.

Lekua eta denbora ere Euskal Herria eta euskal kultura ezagutarazteko erabiltzen ditu. Bere lanak Euskal Herriko (eta Europako) herri desberdinetan kokatzen dira: Gipuzkoa, Nafarroa eta Zuberoan adibidez.

- 33 -

Bos . . . . .	¡E!
Egurtza . . .	Luzaroan obesariarik agertzen dira.
Bos . . . . .	Egurtza, zure arpikeri bat da zu.
Egurtza . . .	(Oi nabarro!) Irusten denute: Ibon, Jaunoro- -etako nagusia ta Garbiñe, Ugaitzko alaba bokaña, zuzait onen arpiak, gabez, bakafik al- -kitu diboga.
Bos . . . . .	Bai, zerofek sortu dezun naspil zital lutan bitaite.
Egurtza . . .	Zok erate azelko, ta beaf dan lekuan agertuko denute.
Garbiñe . . .	¡Alon gaxoa! Lotaz zko zera....
Bos . . . . .	¡Dolof ez beieron gidoial Ta Jan izena daraman!
Egurtza . . .	Zok bañan obetoago.
Bos . . . . .	¡Genuf!
Egurtza . . .	Busiko dezu, az jaitzen darama, Jaunoro- -ieena, sein edetki goratu geldituko dan.
Bos . . . . .	Zure izen naskagaria baño garayago.
Egurtza . . .	Busiko da. (Genuf'ri) Ta, zu, emakume: Neskate-iena betiko galdu dezu....
Bos . . . . .	¡Genuf!
Garbiñe . . .	¡Al!
Egurtza . . .	Biañandik, gure legiak agintzen daten be- -rela, zure burua, zapiaz estalia agertu beaf dezu.
Garbiñe . . .	(Egurtza'ri zuzen betazukamari) ¡Jaiña, afe! Nitzaz kuptatzen ez bazera, nere aitonaiaz egin zait.
	(Bos'ek Garbiñe beutik elizaz aize ta beaf- -tez du.)
Bos . . . . .	¡Ez! ¡Ez! ¡Ez! Aize zait, Garbiñe. Ori etra- -yozula ezet eskatu. Ori bezelako gizon petal bañ etrayo eskatu beaf.... atera egin beaf za- -yo bitarrekien bañan. Onela. (Egurtza atera ta Egurtza'guzi dila. Onok ere atetaz da bere zapata.)

- 34 -

Egurtza . . .	Atoz, gauza ba'zera. (O gizonak atetik Ibon etizen dute. Au beaf- -tzen da) (Egurtza ta zoko-estalia erortzen aize.)
Bos . . . . .	¡Likiakeri, petralak!
Egurtza . . .	Ez det nere zapata. (Egurtzak zapata gordiaz) rikinda nai, zu bezelako gizon lotu ta galdia- -ren odolean.
Bos . . . . .	Arpikeri egileak, beti izan oi dira bildafiti ta ustelak, baña zu bezin nardagaria ifor ez.
Egurtza . . .	¡No!....
Bos . . . . .	¡Zu, bai, zu!
Garbiñe . . .	¡Al! ¡Al! ¡Al! (Garbiñe beutetik gabe erortzen di- -ta. Bos'ek jaitzen du.)
Bos . . . . .	Neskate onen bira zure birka joango da.
Egurtza . . .	Emakume ofek neskate-iena galdu du.
Bos . . . . .	Ez du galdu, ez, naiz zok, basati-ofek, of- -ela nai.
Egurtza . . .	Len ere esan diut, biañandik burua zapiaz estalia agertu beafko duela.
Bos . . . . .	Genuf diuzu, ez du ezurik, ez obenik eta nik bere izena goratoko det.
Egurtza . . .	Bide bat bokaña darama: ezkondu zait berarekin.
Bos . . . . .	¿Ofen bila al zabiltza arpikeri lotu oen bider?
Egurtza . . .	Egin zioten iseka, Egurtzak oedaindu du.
Bos . . . . .	Genuf diuzu, basati amotatu ofek.
Egurtza . . .	¡Lide ez da Ibon'ena izango!
Bos . . . . .	¡Petral.... kixkeri.... naskagari ori.
Egurtza . . .	¡Lide ez da Ibon'ena izango.

Baf-batetan zapia jaitzen du.

Garbiñe laneko elkarrizketa bat. Garbiñeren ohorea arriskuan dago

Denborari begiratzeko badiogu konturatuko gara lan asko XIII. mendean girotu dituela, baina lehenagoko eta geroagoko mendeetan ere girotuko ditu bere istorioak: euskaldunek beste herri batzuekin izandako borroketan zehazki. Modu honetan Euskal Herriko historia kontatzeko aprobetxatzen du bai mikro-historiaren planoan bai makrohistoriarenean.

Espainiako Errekonkistaren oihartzuna eta neska batek ohorea galtzen duenean egiten zutena agertzen zaizkigu *Garbiñe* lanean. *Loretin* Erromatarren kontrako gerra agertzen da eta euskaldunek batzarrak egiteko zeukaten ohitura edo neska gazte ezkongaiak josi behar zituen izara eta alkandorak aipatzen dira. *Yatsu* lanean XVI. mendeko Nafarroako konkista agertzen da eta *Roldanen* Karlo Magnoren jarraitzaileak Orreagan egon zirenekoa eta honekin batera, Romeo eta Julieta bezala, elkarren arerio diren

bi herriren seme-alabak elkarrekin maiteminduta daude azken lan honetan.

Euskal kantuak hartzen ditu bere antzezlanei doinua ipintzeko. Hauekin erritmoarekin jolastea eta antzerkian ikusleak sentitu behar duen katarsia lortzen du. *Garbiñe* oso ezaguna den *Itsasoa laino dago* arrantzaleen kanta agertzen da. *Loretin Goi gorantz beti* deituriko abesti abertzalea erabiltzen du euskaldunen ahoetan, *Gainen* ume-talde batek gabonetako koplak abesten ditu Atarratzeko jauregiaren aurrean eta *Katalina Erauson* Donostiari abesten diote familia honetakoek.

Euskal kultura, historia eta geografia ezagutarazteaz aparte Europako beste herri batzuetako usadioak eta sinboloak ere erakusten dizkigu: Erromatarren jainkoak, Greziako neska esklaboak edo Brujaseko aristokraziak janzen zituen apaingarriak besteak beste. Euskaldun



Garbiñe eta Ibon

jendea ilustratu nahi du ehun urte lehenago Bizenta Mogelek nahi zuen bezala.

Maite Nuñez Beteluk bere tesian dioenez, Katalina abertzalea eta ohiturazalea zen. Goraipamen abertzaleak eta aberriaren defentsa dauzkagu alde batetik, eta historia, tradizioa eta ohiturak biltzeko ardura bestetik. Beste egileengan bi korronte hauetatik bat aurkitu ahal dugu, baina Katalinaren lanetan biek bat egiten dute narrazio estilo berezia sortuz.

Abertzaletasunaren sua Aztain-amonak pizten du *Loretin*, bere hitzekin elikatzen da gizonen aberriarenganako maitasuna: «Aztain-amonak zuen biotzak sutuko ditu euskaldun semeak, eta ezin badu... Aberri! Gizonak saldu nai ba zaituzte, guk, emakumeok, galeraziko degu».

## Garaiko emakume idazleen lanetako gaiak

Emakume idazlea izanik burura datorkigun galdera da ea beste emakume idazleekin hartu-emanik izan zuen. Dakigun guztia da Tene Mujikak zuzendu eta antzetzutu zuela *Garbiñeren* Debako antzezpena 1921ean. Euskal literaturan orain gutxi arte emakume idazle bakoitzak bere bidea egin du, Mariasun Landaren hitzetan «otso esteparioak» izan dira. Besteen lana ezagutuko zuen agian baina handik aurrera bakoitzak bere bidea egin zuen.

Bere garaiko emakume idazleen lanetan bezala bere lanetan ere agertzen diren kezkek deskribatzeko hiru hitz gako daude: aberria, jainkoa eta emakumea.



Bizenta Mogel (1782-1854)



Tene Mujika (1888-1981)





*Garbiñe*

**Aberria:** Lehen hitzari buruz esan behar dugu Sabino Aranaren dotrina zabaltzea baino askoz gehiago egin zuela Katalinak bere lanekin. Saiatu zen ikus-entzuleak euskararekin zaletzen, Euskal Herriko txokoak ezagutarazten, Euskal Herriko historia eta ohiturak agertzen eta euskal literaturaren altxorra diren kantuekin hunkitzen.

**Jainkoa:** Bigarrena oso argi ikusten da. Kristau ona izateko jarraibideak ematen dizkigute protagonistek, eta Jainkoarekin hitz egiten dute tarteka. *Brujaseko harilkian* Ama birjina agertzen zaigu beste pertsonaien artean. Hala ere, lehenago aipatu bezala, beste kultura batzuk ekarri zituen moduan beste erlijio batzuk ere ezagutu ahal ditugu bere lanei esker (eta honekin garaian normala zen mani-keismoarekin apurtzen du nolabait, ona eta txarraren arteko mugak apur bat lausotuz): Erromatarren jainkoak eta sinismenak (*Loreti*); Mexikoko azteken gurtzategiak (*Katalina Erauso*) eta Garai-aztia pertsonaia, Ama-Lurraren sinboloa (*Brujaseko harilkia*).

**Emakumea:** Hirugarrenaren irudikapena beste emakume idazleengan amatasunaren gorespenean daukagun bitartean Katalinarenean ere, baina ez bakarrik. Emakumeak bai fikzioan bai errealitatean senidetasun harremanen bidez definitu izan dira gehienetan. Emakumea ama izan da batez ere gure iruditerian eta ama ez bazen, emaztea edo maitalea izan da nagusiki; gizonenganako harremanen bidez definitutakoak beti bezala.

Katalinaren obran senidetasun harremanez aparte (ama-alaba, amama-biloba, arreba edo lehengusina), ogibidearekin (sorgina, neskamea, etxekoandrea, jostuna, moja, soldadua) eta klase sozialarekin ere (aberatsa eta pobrea) deskribatzen zaizkigu andrazko pertsonaiak, ipuin klasikoetan bezala.

Aipagarriena da emakumeen irudikapen berria agertzen zaigula: lagunak. Emakumeen arteko adiskidetasuna, Laura Freixasen arabera, oso harreman mota berria da literaturan eta hau Garbiñe eta Lideren artean agertzeaz gain (klase desberdinen artean), Loreti eta Sirteren artean gertatzen da (kultura desberdinen artean).



Katalina Eleizegi Maiz (1889-1963)

## Askatasuna

Emakume pertsonaiei begira ari garela ezin dugu ahaztu Katalina Erauso. Emakume askearen eredu da pertsonaia hau, eta hori adierazten digu Katalinak berari eskainitako lanean. Txominek berarekin ezkontzeko esaten dio eta horren ostean hurrengoa pentsatzen du Katxalak: «Ez dago burutik ondo. Ni ezagutzen nauen bezala ezagututa ezkontza aitatu? Ba... gero ez dakit zer izango den, orain baño, orain aske nai det izan, aske. Eta ene aitak ongi artu duala? Nik ez ordea, ta nere eginkizuna da... eginki-zuna? Ez det onetan burua jarri nai ere».

Gero Pierresi hurrengoa esaten dio: «Ez da niretzat Txominek emango lirakean biziera eroso ori. Ene Pierres, aurrean dakust nire izar disdira, ene biotza oso osorik daramana, eta bera jarraitzeko aske bear det izan, munduz mundu, lotura gabe, beti aurrera egiteko».

Eta horrela bizi izan zen Katalina Eleizegi ere, loturarik gabe eta bere txikian munduz mundu. Osasun kaxkarrak eragindako isolamenduarekin eta gerrak bultzatutako autozentsura eta barne-erbestearekin Lizarrako bere gelatxoan agur esan zigun arte.



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzazatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Eleizegi Maiz familiari
- Jose Torrecillari
- Ricardo Zufiaurreri
- Joan Mari Torrealdairi, *Euskal Kultura gaur: liburuaren mundua*. Jakin. 1997
- Patri Urkizu, *Euskal antzertia*. Antzerti. 1984
- Iñaki Aldekoa, *Historia de la literatura vasca*. Erein. 2004
- Maite Nuñez-Betelu, *Género y construcción nacional en las escritoras vascas*. 2001 (argitaratugabeko tesia)
- Iñaki Barriola «Gerraurreko antzerkigintza». Jakin 37. 1985
- Laura Freixas, *Madres e hijas*. Anagrama. 1996
- Llum Quiñonero, *Nosotras que perdimos la paz*. Ed. Foca. 2005

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2007ko iraila

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa  
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.  
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 978-84-457-2594-8 (Lan osoarena)  
978-84-457-2595-5

L.G.: BI - 2585-07

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE CULTURA**  
Viceconsejería de Política Lingüística